

FAKTURA ERRAZTUAK (tiketen ordezoak) - 4/2013 FORU DEKRETUA, urtarrilaren 22koa (Fakturazioaren Araudia)

<p>Zer kasutan egin daitekeen faktura erraztua 4. art.</p>	<p>a. Zenbatekoa 400 € baino gehiago ez denean (BEZ barne).</p> <p>b. Faktura zuzentzailea denean.</p> <p>c. Zenbatekoa 3.000 € gehiago ez denean (BEZ barne), eragiketa hauetako bat bada:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Txikizkako salmenta, are produktuen fabrikatzaileek edo egileek egiten dituztenak ere. • Anbulantziako salmenta eta zerbitzua. • Kontsumitzailearen etxean bertan egindako salmenta edo zerbitzua. • Pertsona eta fardelen garraioa. • Ostalaritza eta otordu zerbitzua, edo janari edota edariak zerbitzatzeari berehalako kontsumitzeko. • Dantza-aretoetako eta diskoteketako zerbitzuak. • Erabilera publikoko telefono kabinen bidez egiten diren zerbitzu telefonikoak, eta eramailea identifikatzen uzten ez duten txartelen bidez egiten direnak. • Ile-apaindegietako eta edertasun-institutuetako zerbitzuak. • Kirol instalazioak erabiltzea. • Argazkiak errebelatzea eta argazkigintzako estudioetako zerbitzuak. • Ibilgailuak kokatu eta aparkatzeko zerbitzuak. • Filmak alokatzea. • Tindategi eta garbitegien zerbitzuak. • Bidesaria duten autobideak erabiltzea.
<p>Faktura erraztuen edukia, gutxienez 7. art.</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Faktura egin behar duenaren IFZ eta izen-deiturak (edo sozietate-izen osoa). • Fakturaren data (noiz egin den) eta eragiketarena (edo aurreratutako ordainketa jaso den eguna), aurrekoa bera ez bada. • Zenbakia eta, behar denean, seriea. Serie bakoitzeko fakturen zenbakiak korrelatiboak izan behar dira. • Emandako ondasunen edo zerbitzuen identifikazioa. • Fakturan agertzen diren eragiketa guztiei karga-tasa bera aplikatzen ez bazaie, eragiketa bakoitzaren zerga-oinarria zehaztu behar da. • Aplikatutako zerga-tasa eta, behar denean, "BEZ barne" esakunea. • Kontraprestazioa, guztira. • Kasuan kasuko datuak: faktura zuzentzailea, salbuetsitako eragiketa, garraioko ibilgailu berriaren ematea, hartzailearen faktura, subjektu pasiboaren inbertsioa, Bidaia-agentzien araubide berezia aplikatzea, Ondasun erabilien, arte objektuen, antzinateko objektuen eta bilduma-objektuen araubide berezia aplikatzea, kutxa-irizpidearen araubide berezia aplikatzea. • Faktura egiten duenak hartzailearen IFZ eta helbidea eta zerga-kuota (bereizita) adierazi behar ditu kasu hauetan: eragiketaren hartzailea enpresaburua edo profesionala bada eta datuok agertzea eskatzen badu; ez enpresaburu ez profesional ez izan arren, datuok agertzea eskatzen badu zergen arloko eskubide bat baliatzeko.
<p>Faktura erraztua emateko epealdia 11. art.</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Hartzailea ez bada ez enpresaburua ez profesionala: eragiketa egiten denean eman behar da. • Hartzailea enpresaburua edo profesionala bada: BEZaren sortzapena gertatzen den egunaren ondoko hilaren 16ra arte.